DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Udalak Nafarroa Behera plazako berdeguneak berrituko ditu

Esku-hartzea hiri-esparru horren eraldaketa integraleko prozesu baten parte da, eta lorategiak garbitu eta egokituko dira lehen fasean.

Donostiako Udalak, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Sailaren eta Parke eta Lorategien Atalaren bitartez, Gros auzoko Nafarroa Behera plazako berdeguneak hobetzeko eta berritzeko lanei ekin die.

Esku-hartzea jasota zegoen jada berdeguneak hobetzeko udal-plangintzan, baina aurreratu egin da, parterreen egoera eta, besteak beste, pertsona batzuek esparru horiek behar ez bezala erabiltzeagatik sortutako narriadura direla-eta jasotako kexengatik.

Azken hilabeteetan egindako ebaluazio teknikoek egiaztatu dute zuhaixka asko zahartzen ari direla, eta landarediak zailtasunak dituela behar bezala garatzeko, lur-trinkotzeagatik eta landare-lur gutxi dagoelako.

Egun hauetan, lan hauetako batzuk hasiko dira egiten: lorategi-esparruak garbitzea eta egokitzea, hondatutako aleak kentzea eta egoera onean dauden zuhaixkak hiriko beste berdegune batzuetan birlandatzea, berrerabil daitezen.

Bestalde, lurzoruak hobetuko dira kalitateko landare-lurra jarriz, espezie berriak haz daitezen eta haien garapenerako baldintza egokiagoak bermatuta egon daitezen.

Iñigo García Villanueva Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkariak adierazi duenez, «badakigu plazako parterre batzuk oso egoera txarrean daudela eta herritarrek hainbat kexa helarazi digutela. Horregatik, esku-hartze hori geroago egitea pentsatzen bagenuen ere, lanak aurreratzea erabaki dugu, esparru hori lehenbailehen berreskuratzen hasteko».

García Villanuevak gogorarazi duenez, «Gros da gure hirian berdegune gutxien dituen auzoetako bat, eta, beraz, oso ondo zaindu behar ditugu baditugunak, haien kalitatea hobetu eta herritar guztiek gozatzeko aukera dutela bermatzearren».

Irudi berri bat plazarako

Lehenengo esku-hartze hau Nafarroa Behera plazaren irudia pixkanaka eraldatu nahi duen berrikuntza-proiektu zabalago baten parte da.

Parke eta Lorategien Atala lorategi-proposamen berri batean ari da lanean gaur egun. Proposamen horren arabera, espezie apaingarriagoak, gogorragoak eta esparruaren ezaugarrietara egokituagoak landatuko dira, eta lehentasuna emango zaie mantentze gutxiago behar dutenei eta plazaren erabilera intentsiboa hobeto jasan dezaketenei.

Aztertzen ari diren aukeretako bat palmondo berriak sartzea da, zuhaixka-espezie eta landare bizikorrekin batera, lehendik dauden zuhaiztiak osatzeko eta biodibertsitatea, landareen presentzia eta ingurunearen paisaia-kalitatea hobetzen laguntzeko.

«Nafarroa Behera plazak lehen zuen erakargarritasuna berreskuratzea nahi dugu. Horretarako, lorategi zainduagoak eta kolore handiagokoak izango ditu, bai eta esparru horren baldintzetara hobeto egokitutako landareak ere. Kontua ez da hondatutako landareak ordeztea soilik, baizik eta esku-hartze hori aprobetxatzea plaza osoa hobetzeko», azpimarratu du García Villanuevak.

Guztion artean gozatzeko eta zaintzeko esparru publikoa

Udalak gogorarazi du Groseko berdeguneek erabilera-intentsitate handia dutela, eta, beraz, horiek kontserbatzeko Udalak mantentze-lan ugari egin behar dituela, eta herritarrek, beren aldetik, arduraz erabili behar dituztela.

Ildo horretan, zinegotziak azpimarratu duenez, «parkeak eta lorategiak elkarbizitzarako eta gozamen kolektiborako guneak dira, baina errespetua eta zaintza ere behar dituzte. Ezin dugu onartu pertsona gutxi batzuen erabilera okerrak guztionak diren berdeguneak hondatzea».